



ARTEAREN HISTORIA

Proposatzen zaizkizun galdera-sorta hauetatik, bat aukeratu eta erantzun horri. Galdera bakoitzak 2,5 puntu balioko du, gehienez ere.

1. GALDERA-SORTA

1.- Greziako arkitektura:

- Ezaugarri definitzaileak eta berrikuntza nagusiak.
- Aipatu arkitektura-multzo garrantzitsuren bat, eta tenpluen eta teatroen adibideren bat.

2.- Pintura gotikoa: Antzinako flandestarren eskola (XV. m.)

- Eskola honen ezaugarri definitzaileak eta ekarpen tekniko-formalak, pintura gotikoaren esparruan.
- Aipa itzazu eskola honetako artistaren bat eta lan bereizgarriren bat.

3.- Arkitektura barrokoa: Berniniren “Vatikanoko San Pedro plaza”:

- Egin lanaren analisia, eta adierazi lanak dituen Barrokoaren eta Berniniren berezko balio espazialak, arkitekturazkoak eta sinbolikoak.

4.Kubismoa: Picassoren “Avignongo andereñoak”

- Egin lanaren analisia (testuingurua, gaia, konposizioa, forma-azterketa), horren bidez adieraziz Picassoren pintura-iraultzaren eta kubismoaren berrikuntzak eta printzipioak.

2. GALDERA-SORTA

1. Eskultura erromatarra: “Prima Porta-ko Augusto”:

- Egin lanaren analisia (testuinguru historiko kulturala, gaia eta forma-azterketa), horren bidez nabarmenduz Erromako eskulturaren eta erretratu inperialaren ezaugarriak.

2.Espainiako arkitektura gotikoa:

- Ezaugarri definitzaileak.
- Hitz egin Espainiako gotikoaren hiru arlo nabarmenetako bati buruz: XIII. mendeko Gaztelako arkitektura, XIV. mendeko Kataluniakoa edota Nafarroan den arkitektura gotikoa.

3.Italiako Klasizismoaren pintura errenazentista (XVI. m.):

- Ezaugarri definitzaileak: printzipioak, pintura horretan gailentzen diren aurrerapen tekniko eta formalak. Hitz egin Italiako Klasizismoko pintore bati buruz (Leonardo da Vinci, Migel Anjel, Rafael).

4.- XX. mendeko arkitektura arrazionalista: Le Corbusierren “Ville Savoie”

- Egin lanaren analisia (testuingurua, premisak, materialak, eraikitze sistema, hizkera formala), eta azaldu horren bidez zein diren arkitektura horren eta bere egilearen bereizgarriak eta berrikuntzak.
- Le Corbusier.